

# Entrenatzaileentzako dekalogoia



## 1 Erreferentea

Erreferentea zara kirolari gazteentzat. Indartu itzazu, motibatu, eta izan konfiantza haiengan.

## 2 Komunikazioa

Komunikazioa beharrezkoa da konfiantza eraikitzeko. Zaindu kirolariekin komunikazioa eta baita haien familiekin ere. Autoritarismoa baztertu, eta izan zaitez lider eraikitzaile bat.

## 3 Balioestea

Taldekilde bakoitzaren indarguneen eta ahulguneen jabe izan. Zure ardura da guztiak baliotsu sentiaraztea.

## 4 Errealista

Helburu errealistak jarri, bakoitzaren gaitasuna, heldutasuna, kultura eta asmoak aintzat hartuta.

## 5 Ahalegina

Baloratu ahalegina emaitzen gainetik beti.

## 6 Marko legala

Entrenatzaileak hezitzaileak zarete. Trebatu zaitez, ezagutu marko legala eta errespetatu gazteen eskubideak.

## 7 Babesa

Zure ardurapeko gazteren batek arriskua bizi duela uste baduzu, maila fisikoan edo emozionalean, zure egitekoa da hori behar den lekuan jakinaraztea eta gaztea babestea.

## 8 Bazterkeriarik ez

Bazterkeriarik gabeko kirol-gunea sortzeko ardura hartu. Eten hitzeko bortizkeria eta keinuak, berdintasuna sustatu, aniztasuna onartu.

## 9 Balioak

Balioetan hezi gazte kirolariak. Zuk ere zaindu zure portaera eta hitzeko jarduna, mezuak, txantxak... Berdintasuna eta laguntasuna sustatu.

## 10 Bideratzailea

Lagundu gazteei dituzten emozioak modu osasuntsuan adierazten. Komunikazioa da giltzarria; galdetu, eta entzun. Haien emozioak sostengatu egoerak zailtzen direnean.

